

Tolosako euskaltegia eta mintzalaguna egitasmoa. Partaideen identifikazioa, motibazioak eta iritziak

Hizneteko Hizkuntza Plangintza ikastarorako egindako sakontze lana:

Egilea: Igor Mujika Artano.

H. elektronikoa: mu.ar.igor@gmail.com

Zuzendaria: Xabier Erize.

Data eta lekua: 2015ean, Tolosan.

Laburpena

Tolosako Aitzol Udal Euskaltegian eta Mintzalaguna egitasmoan euskara ikasten eta euskararen ezagutzan sakontzen ari diren herritarren motibazioak eta iritziak zeintzuk diren jakiteko gogoak bultzatu du ikerketa hau. Zehazki, herritar horien iritziak jaso eta beraiei zuzendutako mezuek nahiz euskarari, orokorrean, lotutakoek duten atxikimendu maila jakiteko ariketa egin da. Hartzailearen motibazioak kontuan hartu gabe egindako komunikazio lanketak eragin gutxi du. Hala ondorioztatu da lan honetan. Nabarmendu beharreko beste ondoriorik ere bada. Izan ere, herritarrei begirako lana egiten duten funtzionarioek ezinbestean euskara jakin behar izatea moduko eskaerekin adostasun maila handia erakutsi dute parte hartzaileek. Motibazioei dagokienean, seme-alabak, bilobak eta integrazioa izan dira balorazio altuenak jaso dutenak, lanari lotutakoak baino gehiago.

Aurkibidea

1	Sarrera	4. orrialdea.
1.1	Ikergaiaren garrantzia	6. orrialdea.
1.2	Aurrekariak	8. orrialdea.
1.3	Ikerketa objetua	10. orrialdea.
1.4	Helburuak	12. orrialdea.
1.5	Hipotesiak	14. orrialdea.
1.6	Metodologia	16. orrialdea.
2	Marko teorikoa	17. orrialdea.
3	Emaitzak	18. orrialdea.
4	Ondorioak	25. orrialdea.
5	Aurrera begira	28. orrialdea.
6	Bibliografia	29. orrialdea.
7	Eranskina	30. orrialdea.

1 Sarrera

Euskararen normalizazioan lanean diharduten eragileek herritarren motibazioak zenbateraino kontuan hartzen dituzten aztertzeke nahiak bultzatuta egin da ikerketa lan hau. Izan ere, herritarrei zuzendutako mezu asko lantzen dira aipatu eragileen aldetik eta herritarren artean eragitea izaten dute mezu horiek helburu. Zehatzago, aurrez definitutako herritar talde jakin batean eragitea izaten dute helburu. Eraginik izaten ote dute, ordea, mezu horiek? Herritarrak identifikatuak sentitzen ote dira?

Euskara ikasteko, euskararen ezagutzan sakontzeko eta praktikatzeko Tolosan indarrean diren bi egitasmoetako partaideekin egin da ikerketa, hain juxtu, Aitzol Udal Euskaltegiko partaideekin eta Galtzaundi euskara elkarteak kudeatzen duen Mintzalagunakoeekin. Euren denboraren eta diruaren zati bat euskara ikasteko, ezagutzan sakontzeko edo praktikatzeko erabiltzen ari diren herritarrak dira.

Interes handia du, beraz, pertsona horien iritziak eta interesak detektatzeak, euskara ikastera, ezagutzan sakontzera edo praktikatzera bultzatu dituzten arrazoiak zeintzuk diren jakiteak. Izan ere, egiten ari diren esfortzu pertsolanak euskararekiko duten atxikimendu maila erakusten digute. Eta, esfortzu personal hori egitera bultzatu dituzten arrazoiak detektatzeak berebiziko garrantzia du, esparru bereko herritarren artean eragiteko bidea erakutsi ahal digulako.

Horregatik, aurretik egindako galderei berriak gaineratu zaizkie: zeintzuk dira pertsona horien motibazioak? Lana? Identitatearekin eta integrazioarekin loturiko arrazoiak? Seme-alabei, bilobei... egin beharreko transmisioarekin lotutakoak? Eta, zenbateraino hartzen dira kontuan pertsona horien motibazioak beraiei zuzendutako mezuek sortu eta zabaltzerakoan?

Galdera asko, beraz, pentsamenduan. Ikerketa hau egiteko motibazio eta arrazoiak hiru puntutan bildu ditugu:

- Aitzol Udal Euskaltegian euskara ikasten edo ezagutzan sakontzen eta Mintzalagunan euskara praktikatzeko ari diren pertsona horien motibazioak zeintzuk izan daitezkeen aztertzea.
- Pertsona horiei zuzendutako mezuen egokitasuna aztertzea, zehazki, mezu horiekin identifikatuak sentitu diren ala ez jakitea.
- Euskararekiko dituzten uste eta iritzien berri izatea.

Txepetx-ek erakutsi digunez, pertsona helduak hizkuntza bat ikasten motibazio edo interes baten ondorioz hasten dira eta, “ulermen maila batetik aurrera, motibazioaren presioak jarraitzen badu, bizitzako egoera konkretu eta errealetan hizkuntza erabiliz bideratzen da ikaste prozesua” (Sánchez, 1987, 39. or.).

Euskalgintzaren helburuetariko bat herritar berriak euskarara gerturatzea, euskara ikastea eta euskaraz hitz egitea da. Herritar gehiago bide bera egitera bultzatzeko, funtsezkoa da euskararen ezagutzan sakontzeko pausoa eman dutenen motibazioak ezagutzea.

Aitzol Udal Euskaltegiak bere ikastaroen eta Galtzaundi euskara elkarteak Mintzalaguna egitasmoaren berri emateko erabilitako mezuekin identifikatuak sentitu diren ala ez galdetu zaie aipatu egitasmoetako partaideei. Identifikatuak sentitzeak,

komunikazio lanketak beraien motibazioetan eragin duela esan nahiko luke eta, beraz, komunikazio ekintzak eraginkortasun handiarekin egin direla. Aldiz, identifikatuak sentitu ez badira, herritar berriak aipatu egitasmoetara gerturatzeko nondik tira badagoela erakutsiko liguke, besteak beste, euskara ikasteko, ezagutzan sakontzeko edo praktikatzeko beharra dutenen motibazioetan eragingo duten komunikazio lanketak eginez.

Azkenik, euskararekiko dituzten uste eta iritzien berri izateko nahiak ere sustatu du ikerketa hau. Izan ere, zein iritzi dute euskal hizkuntza-komunitatearen elementu kohesionatzailea den euskararekiko? Hizkuntza horrekin lotzen diren hainbat eskaera, iritzi etabarrekiko? Iritzi horiek, euskarara hurbildu ala euskaratik urrundu egiten dituzte?

Galdera asko ditugu buruan eta galdera horiei erantzuna aurkitzeko edo, gutxienez, nondik norakoa erakusteko ikerketa hau baliagarri izatea nahiko genuke.

1.1 Ikergaiaren garrantzia

“Iritzi publikoak euskararekiko izango duen pertzepzioa baldintzagarria izango da euskararen etorkizunerako” (Martinez de Luna, 2013, 14. or.). Hala diote soziolinguistikan adituek. Beraz, iritzi publikoaren motibazioak, iritziak... zeintzuk diren jakitea ezinbestean egin beharreko lanketa izango da. Izan ere, profil bereko herritarrak euskarara hurbildu, euskararen ezagutzan sakondu eta erabilera indartzeko bidea erakutsiko digute, besteak beste. Ezagutza horrek eguneroko lana fintzeko balioko digu. Baita ere, halaber, pertsona horien motibazioetan eragiteko helburuarekin komunikazio lanketak egiteko, mezuak... sortu eta gauzatzeko.

Populazioaren zati handia osatzen dute euskara ulertzen ez dutenek eta euskara ulertu eta hala moduz hitz egiteko gaitasuna dutenek. Tolosarren kasuan, gutxi gora behera, herritarren %15 eta %20 inguru dira, hurrenez hurren. Beraz, 6.300 lagun inguru dira Tolosan euskara ulertzen ez dutenak edo euskara ulerturik ere hitz egiteko jario bizirik ez dutenak.

Ezagutzan eta erabileran eragiteko ezinbestekoa izango da pertsona horien guztiengan eragitea. Lan honetan ikertu diren pertsona gehienak, hain juxtu, populazio zati horren parte izan dira. Horregatik, beraien iritzia jakiteak egun euskalgintzatik lantzen diren hainbat mezuren irismena zenbaterainokoa den konprobatzeko balioko digu, hau da, populazio zati horrengan zenbateraino eragiten den ondorioztatzeko.

Pertsona horien motibazioak ezagutzeak edo, gutxienez, hurbilpen bat egiteak, mezu horietan motibazio horiek kontuan hartzen diren ala ez ikustarazteko balioko digu. Hau da, egitasmo horiek sustatzen dituztenen helburuek ala helburu horietara iristeko herritar horiek izan ditzaketen motibazioek osatzen dute mezu horien muina? Izan ere, motibazioak dira herritarrok helburu konkretuak lortzera sustatzen gaituztenak, eta ez alderantziz.

Euskalgintzatik egiten diren hainbat eskaera edo ematen diren hainbat iritziren inguruan pertsona horiek duten pentsamoldea ezagutzeak, berriz, gutxienez bi helburutarako balioko digu.

Batetik, pertsona horien ezagutzan sakontzeko, hau da, beraien profila ahalik eta zehatzenean irudikatzeak. Helburuak zehazteko ezinbestekoa da abiapuntua ahalik eta egokien definitzea, hau da, nora iritsi behar garen jakin aurreko pausoa da non gauden jakitea eta, horretarako, errealitatea ahalik eta egokien marraztea ezinbestean egin beharreko lanketa da.

Bestetik, euskalgintzatik egiten diren mezuekiko atxikimendu maila erakutsiko digu. Izan ere, euskararen ezagutza sakontzeko lanean ari diren herritarrek dituzten usteak azaleratuko dizkigu eta, beraz, mezu horiekin herritar horien eta euskararen eta euskalgintzaren arteko lotura indartzen ala ahultzen ari garen eta, helburua indartzea bada, mezu horien egokitasuna zenbaterainokoa den ondorioztatu ahal izango dugu.

Azkenik, Tolosan gauzatzen diren bi egitasmo horien zabalkunderako, hau da, herritar berriak Aitzol Udal Euskaltegira eta Mintzalagunara erakartzeko baliagarria izango da. Izan ere, bi egitasmo horietara herritarrak erakartzeko egin den komunikazio lanketarekiko identifikazio maila zenbatekoa izan den erakutsiko digu ikerketa lanak.

Ondorioz, bi egitasmo horien sozializazio lana modu egokian egiten ari den ala ez ikusiko dugu eta, mezu berria landu behar izanez gero, nondik hasi jakingo dugu, besteak beste, beraien iritzi eta motibazioetara hurbilpen bat egingo dugulako.

1.2 Aurrekariak

Euskal Herrian plazaratu dira herritarren motibazioak aintzat hartuta egin diren ikerketak, erdaldunek euskararekiko dituzten iritziak eta jarrerak aztertu dituztenak eta, baita ere, iritzi publikoak euskararen inguruan duen pertzepzioa aztertu eta aldatzeko proposamenak egin dituzten lanak. Horien artean, hiru nabarmenduko ditugu.

Management-eko kontzeptuak eta hizkuntza-plangintza

Xabier Erizek “Management edo enpresen alorreko kontzeptuak hizkuntza-plangintzan txertatzeko bideak” aztertu ditu (Erize, 2013, 90. or.). Xabier Erizek azaldu digunez, hizkuntza hautapena soziolinguistikaren erdigunean dago eta euskararen munduak herritarren behar eta nahi linguistikoak zeintzuk diren jakin eta “zer eta zergatik erosten dioten eta zer iritzi duten euskararen munduari buruz eta eskaintzen dituen produktuei buruz” jakin beharko luke.

“Zergatik erosi behar dizuet nik euskara?”, galderari erantzun beharko lioke euskalgintzak, edo zuzenago esanda, herritarrek galdera horri erantzun sendoak emateko argudioak landu beharko lituzke, bere iritzian. Pertsona batek “erantzun sendoa aurkitzen badu, erosiko du euskara edo segituko du erosten; baina erantzuna ahula gertatzen bazaio, ez du erosiko, edo gutxiago erosiko du, edo erosteari utziko dio”, esan du Erizek (Erize, 2013, 90. or.).

Erdaldunen euskararekiko iritziak eta jarrerak

Amarauna ikerketa taldeak 2009an argitaratutako lanean, Euskal Autonomi Erkidegoko erdaldunek euskararekiko duten jarrera, uste eta aurreiritziak aztertu ditu. Zehazki, euskararekiko eta euskararen aldeko hizkuntza politikari buruzko jarrera ez-sutsua duten pertsonak izan dira ikertuak lan honetan.

Ikerketaren egileek azaldu dutenez, “jarrera epeleko pertsonak bereziki interesgarriak dira euskararen normalizaziorako. Izan ere, muturrekoak diren jokabideak aldatzea oso zaila eta geldoa izan ohi da. Jarrera epela edota konplexua dutenek, berriz, rol aktiboa joka dezakete euskararen normalizazioan, modu eta maila ezberdinetan” (Aморrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreña, 2009, 185. or.). Ikerketaren egileen esanetan, aipatu pertsonak egin ditzaketen ekarpenetako batzuk ondokoak dira: euskararen mundura hurbildu, euskara ikasi, seme-alabak euskaldunak izateko bidea egin eta euskararen aldeko jarrera transmititu.

Euskararen Framing berriaz

Iñaki Martinez de Lunak, euskarari dagokionean, euskal jendartearen, bi framing kontrajarri nagusitzen direla esan digu: aldarrikatzailea, hau da, “abertzaletasunaren magalean aspaldian sortua eta egokitzapen batzuk tartean, gaur arte iraun duena” (Martinez de Luna, 2013, 18. or.), eta uzkurra, “euskarak biziraun dezan interbentzioa eta neurriak hartzea beharrezkoa dela ez badu ukatzen ere, halakoak proposatzean edota aplikatzean berehala arbuatzen ditu, inposiziotzat edo diskriminaziotzat joz eta erdaldunen hizkuntza-eskubideen kontrakoak direla argudiatuz” (Martinez de Luna, 2013, 19. or.).

Martinez de Lunaren iritzian, euskarak euskal jendarte osoaren laguntza behar du, ez soilik sektore euskaltzalearena eta, horregatik, bere hitzetan, “euskal gizartearen gehiengo zabalak dituen hautemate eta ulertzeko bi modu kontrajarri horiek gaitu beharko dira” (Martinez de Luna, 2013, 20. or.).

Tolosako ezagutza eta erabilera datuak

2011. urtean Tolosan egin zen inkesta soziolinguistikoaren arabera, Tolosako herritarren %65 euskalduna da; %20k euskara ulertu eta hitz gutxi batzuk hitz egiteko gaitasuna izanik ere, ez du nahiko jariorik euskaraz luze komunikatzeko; %15ek ez du euskara ulertzen.

Tolosan azken hiru urteetan egin diren kale erabilera neurketetako datuak kontuan izanez gero, berriz, Tolosako kaleetan 10 lagunetik 4k hitz egiten du euskaraz. Haur eta gazteen artean, hurrenez hurren, 10etik 7k eta 6k egiten du euskaraz. Helduen eta adinduen artean, berriz, 10etik 3k.

Duela 30 urtetakoekin konparatuta, datu itxaropentsuak dira. 1985ean egindako kale erabilera neurketaren arabera, haurren %37k, gazteen %16k, helduen %30ek eta adinduen %38k egiten zuen Tolosako kaleetan euskaraz. Bataz bestekoa, berriz, %29koa zen.

Euskara erabili	Haurrak (2-13)	Gazteak (14-23)	Helduak (24-63)	Adinduak (64-)
1985	%37	%16	%30	%38
2014	%71	%58	%37	%33

Aldaketa nabarmenak gertatu dira, beraz, Tolosan azken 30 urteetan. Aldaketa horien parte izan dira ere, ziurrenik, euskara ulertu ez edo ulerturik ere hitz egiteko jario biziagirik izan ez arren, euskararekiko aldeketasuna duten pertsonak. Halaber, euskararen ezagutzan eta erabileran Tolosan izandako aldaketak eraginik izan du ere, ziurrenik, pertsona horiek euskara ikasteko edo euskarazko beraien ezagutzan sakontzeko izan ditzaketan motibazioetan eta euskararen erabilerari buruzko iritzietan.

Beraz, aurreko datuetatik ondokoak nabarmenduko ditugu:

- Tolosarren %20 inguruk ez du euskaraz luze eta zabal komunikatzeko nahiko gaitasunik.
- Tolosarren %15ek ez du euskara ulertzen.
- Eskualde oso euskalduneko hiriburua da Tolosa. 28 herrik osatzen dute Tolosaldea eta horietariko asko arnaguneak dira, hau da, “demografi aldetik euskara “bere kabian” sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe “etxeke jaun” sentitzen den eremua”, Mikel Zalbidek (Zalbide, 2014) egindako definizioaren arabera. Tolosak eskaintzen dituen zerbitzuengatik (3. sektorea, ikastetxeak, aisiari lotutakoak...) inguruko herrietako herritarrak maiz joaten dira Tolosara. Tolosan, beraz, bertako herritarrez gain ondoko herrietakoak ere sarri ibiltzen dira.

Pentsamolde politikoa

Tolosarren pentsamolde politikoa aztertzeko, horrek ere euskararekiko iritzietan izan dezakeelako eraginik, 2015eko maiatzaren 24ko udal hauteskundeetako datuak hartuko ditugu kontuan. Ondoko bozkak lortu dituzte aipatu hauteskundeetara aurkeztutako alderdiek: EAJk, 4.723 bozka; EH Bilduk, 3.779 bozka; PSE-EEK, 637 bozka; PPK, 274 bozka. Beraz, pentsamoldez Tolosa nagusiki abertzalea dela ondoriozta dezakegu.

1.3 Ikerketa objektua

2014-2015 ikasturtearen berri ematerakoan Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiko eta Mintzalaguna egitasmoko arduradunek zabalduko mezua eta aipatu egitasmoetako ikasleen identifikazio maila, profila eta euskararen mundutik egiten diren eskaerekiko eta zabaltzen diren mezuekiko iritzia ikertzea izan da lan honen objektua.

Horretarako, ikerketako objektu aipatu egitasmoetako hartzaileak izan dira. Aitzol Udal Euskaltegiaren kasuan, oso oinarritzko euskara ulertzen dutenak nahiz euskararen ezagutzan sakontzen ari direnak. Mintzalaguna egitasmoko partaideei dagokienean, euskara ulerturik eta hitz egiteko oinarritzko gaitasuna izanik ere, jarria bizitzeko mintzapraktika behar dutenak.

Horregatik, management alorreko ezagutza hizkuntza-plangintzan txertatzeko egindako lanketa, erdaldunek euskararekiko dituzten jarrera eta iritzien inguruko ikerketa eta euskararen inguruan sortu beharreko mezu berri bati buruzko hausnarketak izan ditugu abiapuntu.

Management alorreko ezagutza hizkuntza-plangintzan txertatzeko ariketak bezeroen beharrak ezagutu eta asebetetzeko ahalegina egitera bultzatzen gaitu. Izan ere, herritarren behar eta motibazioak jartzen ditu plangintzaren erdigunean eta, behar eta motibazio horiek asetuz, euskalgintzaren egungo bezeroen fideltasuna indartu eta bezero berriak, kasu honetan, euskara ikastera edo ezagutza sakontzera hurbilduko diren herritarrak, erakartzeko bidea erakutsiko digu. Ikerketa honetan Aitzoleko ikasleen eta Mintzalaguna egitasmoko partaideen behar eta motibazioak ezagutzen eta behar eta motibazio horiek bi egitasmoetako arduradunek egitasmo horien zabalkunde erabilitako mezuen erdigunean dauden ala ez aztertzen saiatu gara.

“Erdaldunen euskararekiko iritzia eta jarrerak” ikerketak euskara ez dakiten pertsona konkretu batzuen profila erakutsi digu, hain juxtu, euskararen normalizazioaren aldeko jarrera ez sutsua duten pertsonena. Aitzol Udal Euskaltegiko eta Mintzalagunako ikasle horien profila bera den edo ez aztertzeko ere baliagarri izango zaigu ondoko lana eta, horretarako, aipatu ikerketarako erabilitako lagina hartu da oinarri, galdera berriak sartu badira ere.

Euskararen inguruan sortu beharreko mezu berri bati buruzko hausnarketak, berriz, ikerketatik eratorritako emaitzen ondorioak lantzeko baliagarri izan zaizkigu. Hau da, emaitzak eskuan, euskararen munduko eskaerek eta helburuek Tolosako profil konkretu bateko herritarrek ere bere egin ditzaten zein bide egin beharko litzatekeen ikusteko balioko digu. Izan ere, euskararen mundutik egiten diren hainbat eskaeren inguruko (doakotasuna, mediku euskaldunak...) nahiz urte luzeetan zabalduko mezuen (Euskal Herriko berezko hizkuntza bakarra...) inguruko iritzia eskatu diegu Aitzoleko eta Mintzalagunako ikasleei.

Finean, beraz, management-eko ezagutzak oinarri hartuz, hau da, bezeroen behar eta motibazioak ikertzeko beharra abiapuntu harturik, ondorio ezberdinetara iristeko ahalegina egin da ikerketa lan honetan, besteak beste, ikertutako pertsona horien profila kontuan harturik euskararekiko atxikimendua sustatzeko Tolosan landu beharreko bidea irudikatzen ahalegina, orohar, eta bi egitasmo horien zabalkunde lanketa fintzeko saiakera, zehatz esanda.

Izan ere, Xabier Erizek azaldu bezala, “management-a ekintzara orientatuta dago eta balioak eta ekintzak lotzen ditu: desiragarria (balioak) zer den zehaztu eta hori errealitatean gauzatzea (ekintza)” (Erize, 2013, 94. or). Bide beretik jarraituz, “euskararen merkatu-kuota handitzeko euskararen aldeko jarrerak igotzea lortu behar” dela aurreikusten du (Erize, 2013, 113. or) eta, horretarako, sarri egin ohi den modura soilik “produktu-orientazioan”, hau da, soilik eskaintzen den produktua, bezeroen motibazioak eta iritziak kontuan izan gabe, ahalik eta egokiena izan dadin lan egin beharrean, “bezeroen” interesak eta beharrak, kasu honetan euskara ikasten, ezagutzen sakontzen edo praktikatzan ari direnenak, kontuan hartzeko deia egin du.

Management-eko ezagutzatik ondoko gogoeta egin du Erizek: “bezeroa da funtsean enpresa baten izaera eta norabidea ezartzen dituen. Izan ere, enpresa baten etorkizunean erabakigarriena ez da enpresak zer uste duen, baizik eta bezeroak zer baloratzen duen” (Erize, 2013, 116. or). Ikerketa, honek, zehazki, Aitzoleko eta Mintzalaguneko partaideek baloratzen dutenera hurbilpen bat egiteko balio izan digu.

1.4 Helburuak

Tolosako Aitzol Udal Euskategiko eta Mintzalaguna egitasmoko mezuen eta lanketen egokitasuna bilatzea eta Tolosan euskarara herritar berriak erakartzeko bide posiblea marrazten hasteko datuak izatea izan dira ikerketa honen helburuak.

Euskararen normalizazio bidean erdaldunek egindako lanketa ezin da gutxietsi Tolosan. Hala erakusten digute, adibide moduan, euskara ez jakinik ere kontzientziaz beraien seme-alabak D ereduari matrikulatzen dituzten gurasoek, bere garaian Tolosako ikastetxe guztietan D ereduaren aldeko apustua egin zutenek nahiz beren buruak euskaldundu eta koadrilako eta familiako hizkuntza, gogoeta baten ondorioz, euskara bilakatu dutenek, adibide batzuk aipatzearen. Besteak beste, pertsona horiek egindako lanen edo hartutako erabakien ondorio ere bada egun Tolosan euskararen ezagutza eta erabilera duela 30 urtekoa baino handiagoa izatea.

Management-eko ezagutzak erakusten digunez, ordea, euskararen normalizazio lanketak ere, enpresenak bezala, sarrera, hazkundera eta, azkenik, gainbehera edo hazkunde berria izan ditzake. Euskaldunen ilusio eta asebetetze mailaz gain, “euskaldun berriek” eta euskara ez jakinik ere euskararen normalizazioarekiko atximendua dutenek paper garrantzitsua joko dezakete euskalgintzaren hazkunde berria eragiteko lanketan.

Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula lortu beharrekoa. Garbi dago, ordea, orain arte erabilitako bideekin, gehienera, orain arte lortutako emaitzak lortu ahalko direla, hazkunderatik gainbehera aldira igarotzeko arriskuarekin. Puntu honetan, Theodoro Levitt eta Joseph M. Juranen hitzak gogoratu behar ditugu.

Levitt-ek dioenez, “herritarrek ez dituzte gauzak erosten, arazoen soluzioak erosten dituzte”. Horregatik, herritarren fideltasuna indartzeko eta herritar berriak erakartzeko, erabilgarritasuna eta balorapena nola hobetu etengabeaz aztertu behar da. Bere ustez, “horretarako bezeroek zer pentsatzen duten jakin behar da” (Levitt, 1986, 22. or.).

Bide beretik, Juranek esplikatu digunez, bezeroek beraien oharmentan oinarrituta ezartzen dituzte lehenetsiak. Oharmen horietariko batzuek produktuarekin dute zerikusia. Beste batzuek, ez. Eta, produktuarekiko saltzailearen oharmena eta bezeroena ezberdina denean, “arazo etengabeaz iturria izaten da”, (Juran, 1988, 35. or.).

Horregatik, herritar berriak euskararen normalizaziora erakartzeko bide berriak, norbanakoen behar eta motibazioetatik abiatutakoak, bilatu eta lantzeko garaia izan daiteke. Esaera anglosaxoniarrak dioten modura, “ezer ez da gertatzen bizitzan, zuk gerta dadin egiten ez baduzu behintzat”. Eta, horretan, management-eko ezagutzak asko lagundu ahal digu. Izan ere, Peter F. Druckerrek azaldu bezala, “management-aren egitekoa jendea eraginkortasun handiz gaitzea da, bere alde indartsuak eraginkor eta ahuldadeak hutsal egiteko” (Drucker, 1989, 332. or.).

Begibistakoa da gizartea aldatu dela. Horren erakusle nabarmen bat, ondokoa da: ezagutza maila handiko pertsonen, esaterako, egunkarietan iritzi artikulatuak idatziz herritarrengan eragiten zuten garaietatik, *Twitter*, *Facebook*, *blog*... eta teknologia berriek eskaintzen dituzten antzeko bitartekoen bidez, herritarrek herritarren iritzietan eragiten duten garaira igaro gara. Aro hau, ezagutzaren jendarte moduan definitu du Peter F. Druckerrek eta, bere esanetan, ezagutzaren produktibitatean datza ekonomiaren

desafikoak. Druckerren hitzetan, “ezagutzaren jendarterantz emandako pausoak pertsona jartzen du erdigunean. Eta hori egitean, aurrekaririk gabeko ezagutzaren jendarteko ordezkariari, pertsona jakintsuari, buruzko desafio eta galdera berriak proposatzen dizkigu” (Drucker, 2003, 237. or).

Hari beretik tiraz, Ikujiro Nonaka eta Hirotaka Takeuchiren iritzian ere, lanak eta kapitalak, lehen lurak bezala, protagonismoa galtzen duten bitartean, ezagutza protagonismoa irabazten ari da. Beraien iritzian, “bitartekoetako bat izatetik, bitartekoa izatera igaro da” (Nonaka eta Takeuchi, 1995, 6. or.).

Jendarte honetan, beraz, geroz eta garrantzitsuagoa izango da norbanakoen motibazio eta beharrak ikertu eta ikerketa horien emaitzetatik eratorritako mezu, lanketak eta bitartekoak abian jartzea. Izan ere, Frederick Herzberg-ek esan modura, asebetetzeak faktore emozionalek eragiten dizkigute: aitortua izateak, garapen pertsonalak eta helburuak erdiesteak (Herzberg, 1959).

1.5 Hipotesiak

Ikerketa egiten hasterakoan, hipotesi nagusia herritar horien motibazioak kontuan hartzen dituen mezuak ez direla landu da. Aitzol Udal Euskaltegiaren kasuan, 2014-2015 ikasturtearen berri ematerakoan, “Euskaraz Blai; empápate de euskera” mezua erabili da. Mintzalaguna egitasmoaren kasuan, berriz, “Euskara ulertu bai baina praktikatzeko beharra duzu?; Entiendes euskera pero, ¿necesitas practicarlo?” mezua erabili da.

Biak ala biak mezu zuzenak dira, hau da, hartzaileari zuzendutakoak. Aitzol Udal Euskaltegiaren kasuan, agindu edo gomendio estilokoa da, alegia, euskalgintzan maiz gertatzen den moduan, euskaltzaleak besteei zuzendutako gomendio edo agindua da, “euskaraz bustitzeko” deia egiten duena.

Mintzalaguna egitasmoa sustatzeko erabilitakoak, berriz, egoera horretan denaren gabezia du oinarri eta, amu horren bitartez, egoera horretan diren herritarrak egitasmoa erakarri asmo ditu: euskara praktikatzeko beharra duzu, etorri beraz gurera, guk eskainiko dizugu eta hori.

Kuantitatiboki asko dira Aitzolen eta Mintzalagunan parte hartzeko ezaugarriak dituzten tolosarrak. Hala erakusten digute euskararen ezagutza datuek. Ondorioz, sarea bota eta arrantzan egitea ez da ezinezkoa, are gutxiago Tolosan eta, batik bat, Tolosaldean, euskararen erabilera, eta, beraz, norberak sentitu dezakeen hizkuntza presioa, ez denean ezerezkoa. Are gehiago, ezin dira estrategia berak behin eta berriro errepikatu, ez gutxienez estrategia horien oinarria, estrategia horiek martxan jartzea ahalbideratu zuten arrazoiak, motibazioak, egoerak... berdinak diren ala ez aztertu gabe. Hala erakutsi digu Peter F. Druckerrek: “hartu ziren erabakien oinarri izan ziren usteek bere horretan jarraitzen duten edo zaharkituak geratzen ote diren eta, beraz, berrikusiak izan behar diren jakiteko, norberak zuzenean ikustea da modu bakarra. Uste horiek momenturen batean zaharkituak geratuko direla pentsatu behar da. Izan ere, errealitatea ez da denbora askorako geldirik geratzen” (Drucker, 2003, 179. or).

Herritarrok behar asko ditugu. Behar batzuk besteengandik lehenesteko erabakia, ordea, motibazio pertsonalek eragin ahal digute. Hala funtzionatzen dugu, orokorrean, erosketak egiterakoan. Izan ere, oro har, benetako beharrek ala bestelako motibazioek bultzatzen gaituzte gauza batzuek eta ez besteak erostera?

Hipotesi nagusia, horregatik guztiagatik, ondokoa da: bi egitasmo horien zabalkundean erabilitako mezuekin ez dira identifikatuak sentitu bertako parte hartzaile gehienak eta, beraz, bi egitasmo horietako parte hartzaileen interes, behar, motibazio etabarrak ikertuz, parte hartzaile potentzial gehiago bi egitasmo horietara erakartzeko aukera dago.

Halaber, ikerketa honetan jasotako datuekin ezaugarri oso konkretuko, Aitzol Udal Euskaltegiko ikasleen eta Mintzalaguna egitasmoa partaideen profileko herritarrak, euskararen normalizazio lanketetan parte hartzera sustatu ahal dituen Tolosara begirako mezua eta bidea egiteko abiapuntua jarri daiteke. Informazioa delako edozein albisteren abiapuntua. Hala erakutsi digu Druckerrek: “kontrola eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da antolatutako informazioa izatea, informeeekin eta zenbakiekin. Errealitatearen berri zuzena izateko kontrol hori prestatzen ez bada, norberak joan eta

ikusteko disziplina egiten ez badu, segurtasun osoz dogmatisko antzura eta, ondorioz, eraginkortasunik ezara kondenatua izango da” (Drucker, 2003, 179. or).

1.6 Metodologia

Ikerketa moldeari dagokionean, ikerketa kuantitatiboa hobetsi da, Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiko eta Mintzalaguna egitasmoko partaideen profilen antzekotasuna ez genuelako bermatuta eta, beraz, batzuen eta besteen iritzi eta motibazioak ezberdinak izateko arriskua zegoelako.

Zehazki, Aitzol Udal Euskaltegian euskara ikasten edo duten ezagutza sakontzen ari diren 65 laguni eta Mintzalaguna egitasmoan euskara praktikatzeko ari diren 30 herritarri pasa zaie galde-sorta, hain juxtu, parte hartzaileen %30 eta %50 inguruari, hurrenez hurren.

Aitzol Udal Euskaltegiko irakasleak eta Mintzalagunako dinamitzaileak arduratu dira, bakoitza bere taldeetan, galdera horiek pasatzeaz. Lehenago, beraz, galde-sortaren zergatia, nondik norakoa... azaldu dizkie aipatu egitasmoetako arduradunei ikerketaren egileak.

Horrenbestez, arduradun bakoitzak galdeketaren helburua, zergatia... esplikatzeko gain, bere eraginik gabe, anonimotasunean, ikasleek galde-sortak libreki betetzea ahalbideratu du. Ikasleek banaka erantzun dituzte galderak, hau da, gogoeta indibidualak sustatu dira, talde gogoeten orde. Horren helburua, irakasleek ez ezik, ikasle batzuek ere besteengan eraginik ez izatea izan da, hau da, erantzunak erabat pertsonalak izatea.

Galderei dagokionean¹, Amarauna ikerketa-taldeak “Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak” ikerketa egiteko erabilitako galde-sorta hartu da oinarri ikerketako objektu izan diren Aitzol Udal Euskaltegiko eta Mintzalagunako parte hartzaileen iritzia jasotzeko.

Aipatu ikerketan erabilitako galderei berri batzuk gaineratu zaizkie, zehazki, Aitzol Udal Euskaltegiko eta Mintzalagunako arduradunek bi egitasmo horien sozializazio lanketarako erabilitako mezuarekiko atxikimendu maila eta egitasmo horietako parte hartzaileen motibazioak jasotzea helburu dutenak.

Hizkuntza irizpideei dagokienean, euskarazko eta gaztelerazko bertsioan pasa zaie galdetegiak ikasleei, bakoitzaren maila eta nahiaren arabera, batean edo bestean, ulermen arazorik gabe, erantzuteko helburuarekin.

Ikerketa honek ikerketa berriak, kasu honetan, izaera kualitatibokoak egiteko aukera ematen du. Izan ere, erantzunetan jasotako iritzi eta motibazioetan sakontzeko bidea egon daiteke ikerketan parte hartu duten norbanako batzuk bildu eta erantzun horietan nahiz galdera berrietan sakonduz. Lan hori, ordea, aurreragorako edo beste norbaitek egiteko utziko du ikerketaren egileak.

1: ikusi eranskina atala, 31. orrialdean.

2 Marko teorikoa

“Management-eko kontzeptuak eta hizkuntza-plangintza” lanean Xabier Erizek nabarmendu digunez, “Management-en ekarpen nagusia herritarren behar, balio eta hautamen linguistikoak plangintzaren erdigunean jartzea” da (Erize, 2013, 90. or.).

Hain juxtu, Peter F. Druckerrek, duela jada 60 urte baino gehiago, enpresa osoa bezeroaren ikuspegitik antolatzeko beharra ikusi zuen. Bere iritzian, zuzendaritza alorretan hartu beharreko erabaki garrantzitsuena edo zailena ez da erantzun zuzenak topatzea, galdera egokiak egitea baizik (Drucker, 1954).

Bide beretik, Erizen iritzian ere “prozesu osoa bezeroen beharrak ezagutzeko, eragiteko eta asebetetzeko esfortzu koordinatu bat bezala ikusi beharko litzateke” (Erize, 2013, 102. or). Izan ere, epe luzeko arrakastaren gakoa euskararen bezeroak direla uste du. Gaineratu duenez, “hazkundeari eusteko gakoa bezeroaren behar eta nahietan oinarritutako zuzendaritza estiloan dago, ziurtzat eman gabe enpresaren produktuek luze iraungo dutela” (Erize, 2013, 111. or.), alegia, euskararekiko atxikimendua betirakoa izango dela. Horregatik, euskarak erabileran eta ezagutzan gora egiteko euskalgintzak bi erronka nagusi dituela uste du: euskaldunen jarreretan, ezagutzan, erabileran eta transmisioan optimizatzea eta hiztun berriak irabaztea.

Bere ustez, “euskararen munduak jakin beharko luke zein diren herritarren behar eta nahi linguistikoak eta haiei nola erantzun. Halaber, jakin beharko luke bezeroek zer eta zergatik erosten dioten eta zer iritzi duten euskararen munduari buruz eta eskaintzen dituen produktuei buruz” (Erize, 2013, 93. or). Beraz, euskaldunen eta euskararekiko jarrera positiboak dituztenen eta, ondorioz, euskaldun berriak izan daitezkeen pertsonen, management-eko hizkeraren arabera “bezero potentzialen”, motibazioak ikertzeko gomendioa egin du. Puntu honetan, Druckerren irakaspena nabarmendu behar dugu: “etorkizuna eraikitzeke helburuaren muina ez dago bihar zer egin erabakitzean, etorkizuna izateko gaur zer egin erabakitzean baizik” (Drucker, 2013, 495. or).

“Motibazioen ikerketa, hein handi batean, pertsonen azken helburuen, desiren edo beharren ikerketa izan behar da” (Maslow, 1954, 5. or). Horren erakusle, norbaitek jana erosten duenean urdailaren goseari baino bere jateko nahiari erantzuten diola esan du Abraham Maslow-k. Bere iritzian, pertsonak oso gutxitan lortzen du erabateko zorientasuna. “Desira bat bete bezain azkar, beste bat agertzen da”, dio (Maslow, 1954, 7. or.). Ondorioz, motibazio guztien arteko harremana aztertzea funtsezkoa da, bere ustetan.

Hari beretik tiraz, ondokoa dio Erizek: “managementeko literaturak erakusten digu leialtasuna oso lotuta dagoela herritarrek hizkuntza jakin batean lortzen duten asebetetze mailarekin, horren arabera hartuko dituztelako erabakiak, hizkuntzari eusteko zein hizkuntza alde batera uzteko” (Erize, 2013, 121. or.).

Erizek gaineratu duenez, euskarak hizkuntza nagusiekiko duen abantaila konpetitiboa zein den ere aztertu beharko litzateke. Bide horretan, ondokoa azpimarratu du: euskararen abantaila konpetitibo nagusia diferentziazioa da, ez kostua.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da, esaterako, Iñigo Fernandez de Ostolozak “Hizkuntza gutxituen eraginkortasuna pertsuasio prozesuetan. Euskararen kasua EAEn” ikerketa

lanean euskarari, hizkuntza gutxitua den adinean, atxikitu dizkion onurak. Aipatu ikerketan azaldu duenez, oso garrantzitsuak diren hizkuntza motibazioak, soziolinguistikaren eremuan, bi multzo nagusitan bereizten dira: “integratzaileak eta instrumentalak. Lehenengoaren eremuan, hizkuntza-komunitatearen partaide izateko edo partaideen antza hartzeko nahia dago, sarritan sentimendu identitario batek bultzatua izaten dena. Motibazio instrumentalak dituzte, berriz, hizkuntza helburu jakin bat lortzeko baliatzen dutenek: lantokian gora egiteko...” (Fernandez de Ostolaza, 2012, 21. or). Beraz, biak ala biak, hau da, motibazio integratzaileak eta instrumentalak kontuan hartu beharko lirateke euskalgintzatik mezuak lantzerakoan.

Iñigo Fernandez de Ostolazak ere “Euskara nola saldu” izenburuko artikuluan azpimarratu duenez, “euskarak duen sedukzio indarra elikatu behar genuke, hizkuntzak hiztunengan lan egin dezan lortzeko bideak bilatu eta ezarri behar genituzke. Euskarak hitzuna harrapa dezan, hizkuntzak hitzuna limurtu dezan, lortu behar dugu. Euskaraz goza dezaten lortuta ekarriko ditugulako benetan euskarara” (Fernandez de Ostolaza, 2006).

Azkenik, komunikazioak duen garrantzia nabarmendu digu. Bere hitzetan, ondokoak dira garatu beharreko ildoak: “terminologia argi eta adostua (euskalduna / euskal herritarra); euskara guztiona (euskaldunok gara interesatuenak erdal komunitateak euskararen aldeko diskurtsora erakartzeko. Guztiona da altxorra: guztiona arazoa. Euskaldunok geure egin dugu erdara eta, beraz, erdaldunek ere jarrera positiboa euskaraz bizi nahi dugunok arazorik izan ez dezagun gutxieneko baldintzak onartu eta bermatuz); erdaldun euskalzaleak eta euskaldun berriak: erdal hiztun komunitateek euskararen alde egindako ahaleginak eskertu; euskaldunak lehen xede talde: euskara estimatzen duen euskaldunak jakin behar du erabiltzean ematen diola arnasa euskarari” (Fernandez de Ostolaza, 2006).

“Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak” lanaren egileek azaldu digutenez, berriz, “ikerketaren ikuspegitik, euskararekiko eta euskararen aldeko hizkuntza-politikari buruzko jarrera ez-sutsua duten lagunak bai-bainako jarreradun pertsona modura definitu dira. Bai-bainakoak iritzi-sorta konplexu eta zehatzua duten pertsonak dira, zenbaitetan iritzi horiek kontraesankorrak ere badira. Euren konpromiso maila epela da. Alabaina, euskararen alde egingo luketenaren ideia zehatza dute” (Amorrortu, Orteaga, Idiazabal eta Barreña, 2009, 185. or).

Beraien ustetan, ezaugarri horiek dituzten pertsonen rol aktiboa joka dezakete euskararen normalizazioan. Zehazki, ondoko esparruak nabarmendu dituzte: “euskararen mundua ezagutzera eta hurbiltzera, euskara begi onez ikustera, bere behar eta mugen arabera euskara ikastera, haien umeak euskaldunak izan daitezten ahaleginak egitera eta euskararen aldeko jarrerak transmititzera, besteak beste. Beraz, ezinbestekoa da talde horren ezaugarriak ahalik eta modu zehatzenean ezagutzea, eta erakusten dituzten jarreraren oinarriak zeintzuk diren ulertzea” (Amorrortu, Orteaga, Idiazabal eta Barreña, 2009, 185. or).

Iñaki Martinez de Lunaren arabera, “euskararen etorkizunerako bidegurutzea euskara versus iritzi publikoaren artekoa izango da” (Martinez de Luna, 2013, 14. or.).

Ildo horretan, ondokoa nabarmendu du: “une honetan, bestelako ikuspegi etikoei eta ideologikoei erreparatu gabe, euskara biziberritzeko ahaleginetan euskalgintzak ezin du

bere burua mugatu framing aldarrikatzailea erabiltzera, ondoko arrazoi pragmatikoengatik: a) horrekin gizartearen zati handi bat bere planteamenduetara biltzerik ez duelako; b) harreman gatazkatsuetan boteretsuaren logika bera erabiliz gero, boteretsuenak garaile ateratzeko dituen aukerak handiagoak direlako; c) framing aldarrikatzaileari neurria hartuta –euskara bertako zinezko hizkuntza bakarra eta euskal izaeraren ardatza da; aldiz, erdara biak hizkuntza arrotz eta inposatuak dira-, framing uzkurra –euskarak biziraun dezan interbentzioa eta neurriak hartzea beharrezkoa dela ez badu ukatzen ere, halakoak proposatzean edota aplikatzean berehala arbuiatzen ditu, inposiziotzat edo diskriminaziotzat joz eta erdaldunen hizkuntza-eskubideen kontrakoak direla argudiatuz- haren aurkako erantzuna arrakastaz bultzatzen eta zabaltzen ari delako” (Martinez de Luna, 2013, 45. or.).

Martinez de Lunaren arabera ere, “euskararekin irabazi egiten dela esate hori gutxi landu eta hedatu da, salbuespenak salbuespen. Baina ideia hori, Framing Berriko –sortu beharko litzatekeena, bere iritzian- priming gisa balekoa litzatekeelakoan gaude, hartzailea edonor izanda ere, nola bertakoa hala etorkina, nahiz euskalduna nahiz erdalduna” (Martinez de Luna, 2013, 71. or.).

Beraz, Martinez de Lunak ere euskararen biziraupenetik euskarazko ongizaterako pausoa emateko deia egin du.

3 Emaidzak

Jarraian, hurrenez hurren, Aitzol Udal Euskaltegiko ikasleek eta Mintzalaguneko partaideek emandako erantzunetatik, ondokoak nabarmenduko ditugu.

Aitzol Udal Euskaltegiko ikasleei dagokienean:

- %94ek bere hurrek edo bilobek euskara jakitea nahi dute.
- %86k euskara ikasteko erabateko edo zertxobaiteko prestutasuna du.
- %72k 10 urte edo gehiago daramatza Tolosaldean bizitzen, %13k 10 urte baino gutxiago eta %15ek 5 urte baino gutxiago.
- %58 euskara gehiagotan ikasten saiatu da.
- %55ek dio lagun euskaldunetz inguratuta dagoela, %40k lagun euskaldun gutxi batzuk dituela.
- %53k dio “nahikoa” edo “asko” hitz egiten dela euskaraz bere lagunartean eta familian.
- Soilik %1ek dio derrigortuta dagoelako ari dela euskara ikasten.

Euskara ikasteko arrazoiei dagokienean, ondokoak nabarmendu behar ditugu:

- “Euskaldunekin euskaraz egiteko”, zertxobait edo erabat garrantzitsua izan da %96rentzako.
- “Seme-alabei edo bilobei hitz egiteko”, zertxobait edo erabat garrantzitsua izan da %92rentzako.
- “Euskal kultura ezagutu eta ulertzeko”, zertxobait edo erabat garrantzitsua izan da %83rentzako.
- “Gure hizkuntza delako”, zertxobait edo erabat garrantzitsua izan da %81rentzako.
- “Euskaldunekiko errespetuagatik”, zertxobait edo erabat garrantzitsua izan da %80rentzako.
- “Nire ingurunea euskalduna delako eta integratzeko”, zertxobait edo erabat garrantzitsua izan da %80rentzako.
- “Ez dadin galdu”, zertxobait edo erabat garrantzitsua izan da %76rentzako.
- “Euskaldun asko dauden ingurunean bizi naizelako”, zertxobait edo erabat garrantzitsua izan da %76rentzako.
- “Lan arrazoiak medio”, zertxobait edo erabat garrantzitsua izan da %73rentzako.

Euskara ikasterakoan, galdetutakoetatik, ondoko motibazioak nabarmendu dituzte:

- %89arentzako, “Tolosaldean hitz egiten den euskara, kalekoa, izatea”.
- %80rentzako, “ordutegia nire beharretara egokitua izatea”.
- %78rentzako, “nire seme-alabekin edo bilobekin zerikusia duten ekintzekin lotura izatea”.
- %66rentzako, “euskara ikasteko laguntza ekonomikoa izatea”.

- %63rentzako, “nire ogibiderako beharrezkoak diren komunikazio ekintzak garatzeko balio izatea”.
- %58rentzako, “doakoa izatea”.

Euskararen inguruko iritziei dagokienean:

- %92 “hizkuntza bat salbatzeko ezinbestekoa da neurriak hartzea, nahiz eta guztien gustukoa ez izan” adierazpenarekin ados dago.
- %81 publikoari begira lan egiten duten funtzionarioek euskara jakitea ezinbestekoa izatearekin nahiko edo erabat ados dago.
- %72k uste du neurri horiek alderdien arteko adostasunarekin hartu beharko liratekeela.
- %70entzako euskal herritarren hizkuntza propioa bakarra da. %30entzako, euskal herritarren hizkuntzetako bat da.
- %30 “euskara jada ez dago arriskuan” esaldiarekin nahiko edo erabat ados dago.

Aitzol Udal Euskaltegiari buruz esandakoen artean, ondokoak nabarmenduko ditugu:

- %95 baino gehiagok beste norbaiti gomendatuko lioke.
- %92rentzako egitasmoa bere beharrak zertxobait edo erabat betetzen ari da.
- %70 zertxobait edo erabat ados dago “egiten dugun esfortzua saritzeko eta euskara praktikatzeko, euskarazko kultur eskaintzetara joateko beharpenak izan edo doan” eskuratzearekin.
- %52k euskarazko kultur agendaren berri izan nahiko luke.
- Jendea erakartzeko asmoz erabiltzen dituzten mezuekin zertxobait edo erabat identifikatuak %26 sentitu dira. %30, aldiz, batere ez edo oso gutxi identifikatuak sentitu dira.

Mintzalaguna egitasmoari dagokionean:

- %96k bere haurrek edo bilobek euskara ikastea nahiko luke.
- %93k 10 urte edo gehiago daramatza Tolosaldean bizitzen. %7k, berriz, 10 urte baino gutxiago eta bost urte baino gehiago.
- %83k euskara ikasteko zertxobaiteko edo erabateko prestutasuna du.
- %66 lagun euskaldunez inguratua dago, %26k lagun euskaldun gutxi batzuk ditu.
- %66 lehenago ere euskara ikasten saiatu da.
- %46k dio “nahikoa” edo “asko” hitz egiten dela euskaraz bere ingurunean.

Euskarara gerturatzekoan, praktikatzekoan... izan duten garrantziagatik ondokoak nabarmendu behar ditugu:

- %93arentzako badu garrantziarik, zertxobait edo erabatekoa, “gure hizkuntza delako”.
- %93rentzako, badu garrantziarik, zertxobait edo erabatekoa, “seme alabei edo bilobei hitz egiteko”.
- %90entzako, badu garrantziarik, zertxobait edo erabatekoa, “ez dadin galdu”.
- %86rentzako, badu garrantziarik, zertxobait edo erabatekoa, “euskaldunekiko errespetuagatik”.

- %86rentzako, badu garrantziarik, zertxobait edo erabatekoa, “euskal kultura ezagutu eta ulertzeko” eta “euskaldun asko dauden ingurunean bizi naizelako”.
- %83rentzako, badu garrantziarik, zertxobait edo erabatekoa, “euskaldunekin euskaraz egiteko”.
- %76k dio “nire ingurunea euskalduna delako eta integratzeko” ari dela euskara praktikatzeko.
- %60k dio “lan arrazoiak medio” ari dela euskara praktikatzeko.

Euskara praktikatzerakoan, galdetutakoetatik, ondoko motibazioak nabarmendu dituzte:

- %83arentzako, “nire seme-alabekin edo bilobekin zerikusia duten ekintzekin lotura izateak” zertxobait edo erabateko garrantzia du.
- %80rentzako Tolosaldean hitz egiten den euskara, kalekoa, izateak zertxobait edo erabateko garrantzia du.
- %70entzako ordutegia bere beharretara egokitua izateak zertxobait edo erabateko garrantzia du.
- %56rentzako, “nire ogibiderako beharrezkoak diren komunikazio ekintzak garatzeko balio izateak” zertxobait edo erabateko garrantzia du.
- %46rentzako doakoa izateak zertxobait edo erabateko garrantzia du.

Euskararen inguruko iritziei dagokionean:

- %86 “hizkuntza bat salbatzeko ezinbestekoa da neurriak hartzea, nahiz eta guztien gustukoa ez izan” adierazpenarekin erabat edo zertxobait ados dago.
- %80 publikoari begira lan egiten duten funtzionarioek euskara jakitea ezinbestekoa izatearekin nahiko edo erabat ados dago.
- %80k uste du neurri horiek alderdien arteko adostasunarekin hartu beharko liratekeela.
- %46rentzako euskara euskal herritarren hizkuntzetako bat da, ez bakarria.
- %43rentzako euskara euskal herritarren hizkuntza propioa bakarria da.
- %36 “euskara jada ez dago arriskuan” esaldiarekin erabat edo zertxobait ados dago.

Mintzalaguna egitasmoari buruz esandakoetatik, berriz, ondokoak nabarmenduko ditugu:

- %86rentzako “egitasmoa nire beharrak betetzen ari da”.
- %80ak beste norbaiti gomendatuko lioke Mintzalagunan parte hartzea.
- %66k ordu gehiagoz joan beharko lukeela uste du.
- %53 “egitasmo honen sortzaileek jendea erakartzeko erabiltzen dituzten mezuekin” erabat edo zertxobait identifikatua sentitu da. %6 ez asko eta ez gutxi, %3 batere ez eta %36k ez daki.
- %50ek euskarazko kultur agendaren berri izatea eta “egiten dugun esfortzua saritzeko eta euskara praktikatzeko euskarazko kultur eskaintzetara joateko beharpenak izan edo doan eskuratu beharko” litzatekeela uste du.
- %40ek herritarrekin eta herriko eragileekin kontaktu gehiago bilatu beharko litzatekeela uste du.

Beraz, laburbilduz, ondokoak nabarmenduko ditugu:

Parte hartzaileen profilaren hurbilpena

Bi egitasmoetako partaideen gehiengo ez da etorri berria. Bataz besteko, %80k 10 urte edo gehiago daramatza Tolosan bizitzen. Nabarmenezkoa da ere bi egitasmoetako partaideen kasik erdiak ingurune erdalduna duela. Bataz besteko, parte hartzaileen kasik 10etik 6 lehenago ere saiatu da euskara ikasten. 10etik 8k baino gehiagok euskara ikasteko erabateko edo zertxobaiteko prestutasuna du eta, 10etik 9k baino gehiagok, kasik 10etik 10ek, beren ondorengoek euskara jakitea nahiko luke.

Euskara ikastera bultzatu dituzten arrazoien hurbilpena

Atal honetan nabarmendu beharrekoa, ingurune euskaldunak duen ondorioa da. 10etik 8k –Aitzolgo ikasleen kasuan- eta 9k –Mintzalagunakoenean- euskara bere hizkuntzat du eta, horrek, badu eraginik euskara ikasteko motibazioen artean. 10etik 8 eta, kasu batzuetan, 9 baino gehiagorentzako ere zertxobaiteko edo erabateko garrantzia dute euren motibazioen artean ondoko arrazoiek: “euskara ez dadin galdu”, “euskaldunekiko errespetuagatik”, “seme-alabei edo bilobei hitz egiteko” eta “euskaldunekin euskaraz egiteko”.

Lan arrazoiak, 10etik 7rentzako --Aitzolgo ikasleen kasuan- eta 10etik 6rentzako –Mintzalagunakoenean- dira motibazioak euskara ikasi edo praktikatzeko.

Ingurunea euskalduna izatea eta integratzeko behar izatea, 10etik 8 eta 7rentzako, Aitzolgo eta Mintzalagunako ikasleen artean, hurrenez hurren, dira motibazio garrantzitsuak.

Garrantzitsuak dira ere, 10etik 8 baino gehiagorentzako, “euskaldun asko dauden ingurunean bizi naizelako”, “euskal kultura ezagutu eta ulertzeko” eta “nire ingurunea euskalduna delako eta integratzeko” moduko arrazoiak.

Euskara ikasteko motibazioak

Transmisioak duen garrantzia nabarmendu behar dugu atal honetan. Izan ere, 10etik 8 baino gehiagorentzako motibazio garrantzitsua da euskara ikasterakoan seme-alabekin edo bilobekin zerikusia duten ekintzekin lotura izatea.

10etik 6rentzako da, berriz, garrantzitsua bere “ogibiderako beharrezkoak diren komunikazio ekintzak garatzeko balio izatea”. Doakotasunari eta dirulaguntzei 10etik 6k ematen diote garrantzia. Puntu honetan kontuan izan behar dugu, Mintzalaguna egitasmoa doan dela eta Aitzol Udal Euskaltegian, probetxua ateraz gero, tolosarrak, gehienera, 250 euro inguru gastatzen dituela Tolosako Udalak emandako dirulaguntzak eta ikas-materiala kontuan hartuta.

Praktikotasunak ere badu garrantzia. Hala erakusten digu, ordutegia bere beharretara egokitu ahal izatea eta Tolosaldean hitz egiten den euskara, kalekoa, izatea 10etik 8rentzako garrantzitsua izateak.

Euskararen inguruko iritziak

Hiru puntu dira nabarmenezkoak atal honetan. Batetik, euskal herritarren hizkuntza propioa bakarria den ala ez eztabaidak sortzen duen zalantza; bestetik, jende aurreko jardueratan egoten diren funtzionarioek euskara jakiteko behararen aldekoitasun

nabarmena; azkenik, euskararen egoerarekiko batzuek duten baikortasuna.

Izan ere, Aitzoleko ikasleen 10etik 7rentzako euskara euskal herritarren hizkuntza propioa bakarra da. Aldiz, Mintzalaguna egitasmoan dabilen artean portzentaia hori 10etik 4ra jeisten da. Besteentzako, euskal herritarren hizkuntzetako bat da, ez bakarra.

10etik 8 baino gehiago, halaber, bi egitasmoetako partaideen artean, ados dago, zertxobait edo erabat, publikoari begira lan egiten duten funtzionarioentzako euskara jakitea ezinbestekoa izatearekin. 10etik 9 inguruk uste du, halaber, hizkuntza bat salbatzeko ezinbestekoa dela neurriak hartzea, nahiz eta guztien gustukoa ez izan. Gehiengoak, 10etik 7k, neurri horiek alderdien arteko akordioan oinarrituta hartu behar direla uste du.

Nabarmentzekoa da, azkenik, 10etik 3rentzako euskara jada ez dagoela arriskuan.

Mezuaren identifikazioa eta egitasmoaren asebetetze maila

Atal honetan nabarmentzekoak ondorengoak dira: bi egitasmoen zabalkunderako erabilitako komunikazio lanketarekiko erakutsi duten identifikazio txikia eta, aldiz, bi egitasmoekiko duten asebetetze maila altua.

Aitzol Udal Euskaltegiaren kasuan jendea erakartzeko asmoz erabiltzen dituzten mezuekin zertxobait edo erabat identifikatuak %26 soilik sentitu dira eta, %30, aldiz, batere ez edo oso gutxi identifikatuak sentitu dira. Beraz, gehiago dira batere ez edo oso gutxi identifikatuak sentitu direnak, zertxobait edo erabat identifikatuak sentitu direnak baino. Mintzalaguna egitasmoaren kasuan, %53 sentitu da erabat edo zertxobait identifikatua Mintzalaguna egitasmoa erakartzeko erabilitako mezuarekin. Kontrakoa diotenak ez dira asko, %9, ez asko eta batere ez diotenak batuta.

Kontrara, asebetetze maila oso altua da bi egitasmoei dagokienean. 10etik 9k baino gehiagok hala dio eta beste norbaiti gomendatuko lioke Aitzol Udal Euskaltegiaren kasuan. 10etik 8 baino gehiagok, Mintzalaguna egitasmoari dagokionean.

Nabarmentzekoa da ere, azkenik, ulermena lantzeko euskarazko kultur ekitaldietara joateko sarrerak doan eskuratzea, 10etik 7k baino gehiagok Aitzol Udal Euskaltegiaren kasuan eta 10etik 5ek baino gehiagok Mintzalagunakoen artean, positiboki baloratuko lukeela.

4 Ondorioak

Aurreko emaitzetatik eratorritakoak sei ondorio nagusitan laburbildu ditugu:

1. Begibistakoa da lehen ondorioa. Bi egitasmoetako arduradunak baina, batik bat, Aitzol Udal Euskaltegikoak, ez dira ari aipatu egitasmoen berri ematerakoan komunikazio lanketak modu eraginkorrean egiten. Hala ondoriozta dezakegu “egitasmo honen sortzaileek jendea erakartzeko erabiltzen dituzten mezuekin” zenbaterainoko identifikazioa sentitu duten galderari emandako erantzunekin. Baieztapen horretatik, ondorengoa ere ondoriozta dezakegu: bi egitasmoetako parte hartzaile potentzial handi batek ez du Aitzolen edo Mintzalaguna egitasmoan izena ematen.

Beraz, kontuan izanik Tolosan ia euskaldunak eta erdaldunak zenbat diren, oraindik orain asko dute bi egitasmoetako arduradunek irabazteko, parte hartzaileei dagokienean, sozializazio lanketan erabili beharreko mezuarekin asmatuz gero. Zalantzarik gabe, horretarako bezero orientazioari egun baino garrantzia handiagoa eman beharko diote aipatu egitasmoen sozializazio lanketa egiterakoan, hau da, bi egitasmoetako partaide potentzialek euskara ikasteko edo praktikatzeko izan ditzaketen motibazio pertsonalei dagokienean.

Bide bat egin dezakete ere bertako partaideen parte hartzea sustatuz. Izan ere, bi egitasmoetako partaideen gehiengo ia erabatekoak beste herritarrei egitasmo horien berri emango lioketela adierazi du. Hari beretik tiraz, kontuan izan behar dugu ere partaideek egitasmoekiko erakutsi duten asebetetze maila oso altua, ia erabatekoa. Puntu honetan, Druckerren ondoko hitzak gogoratu behar ditugu: “hatz markak bezain ezberdinak diren norberaren gaitasunekin lan eginez soilik lortu daiteke eraginkortasuna. Bakoitzak jada baduena bilakatu behar du eraginkor, ez ez dugun hura” (Drucker, 2003, 253. or).

2. Informazioa eskuratzeko, inbertitu egin behar da. Denbora, ikerketa, dirua... suposatuko du kasurik gehienetan. Baita ere, ordea, eraginkortasuna. Beraz, egun bezeroen edo aipatu egitasmoetako parte hartzaileen iritzia, motibazioak... jakiteko egiten den inbertsioa baino askoz handiagoa egin beharko da eraginkortasuna lortu nahi bada.

Hari beretik tiraz, kontuan izan behar dugu bertako partaideen asebetetze maila oso altua dela. Joseph M. Juranek esplikatzen digunez, bezeroen asebetetze maila, gehienetan, erakundearekin harremantzen denean jasotzen duen tratuaekin lortzen da, prezioarekin baino gehiago. Bere hitzetan, “bezeroen beharren parte dira produktuarekin asebetetzea eta produktuarekin atsekaberik ez izatea” (Juran, 1988, 295. or). Horregatik, bezeroen beharretara ahalik eta egokien egokitutako produktu eta prozesuak garatzeko gomendioa egin du.

Gaineratu duenez, ondokoak dira kalitatearen trilogiak: planifikazioa, kontrola eta hobekuntza jarraitua eta, bere esanetan, hau guztia ezin da egin, herritarren iritzia jakin gabe. Hitzez hitz, ondokoa dio: “bezeroak, batik bat erabiltzaileak, dira bezeroen informazioaren iturri garrantzitsuena” (Juran, 1988, 295. or). Beste arrazoi bat, beraz, etorkizunera begira bezero orientazioa kontuan hartu eta gainbehera prozesuan erortzeko arriskua ahalik eta gehien gutxitzeko.

Produktu orientaziotik bezero orientaziorako aldaketa ematerakoan, Edgar H. Schein-en hitzak gogoratu behar ditugu: “bere taldekideek aldaketak egiteko beharra onartzeko eta, normalean, traumatikoa izan ohi den ikaste prozesua abiatzeko, liderrek segurtasun psikologiko nahikoa eskaintzeko moduren bat aurkitu behar dute” (Schein, 1992, 332. or.).

3. Nabarmentzekoa da, halaber, egindako esfortzua “saritzeko” gain, bi egitasmoetako partaideek ulermena lantzeko eta euskararen munduan integratzeko bidea izan daitekeela euskarazko kultur ekintzetara joateko sarrerak ematea parte hartzaileei. Mintzalaguneko erdiak baino gehiagok eta Aitzoleko 10 ikasletatik 7k baino gehiagok oso positiboki baloratu du.

Bide beretik jarraituz, egindako esfortzua txalotzeko eta jendarteratzeko, eta, bide batez, aipatu egitasmoak sozializatzea helburua izango lukeen ekitaldia antolatzeak ere lagunduko luke euskalduntzeko zubia irudikatzen eta herritar berriak pauso hori ematera gonbidatzen. Euskaldun berriaren figura txalotu eta sozializatzea bidea ere izan daiteke, kontuan izanik ere Tolosak historikoki euskalduntze prozesuan garrantzi handia izan duela, asko izan direlako Tolosara euskara ikastera etorritakoak.

4. Mezuari eta edukiei dagokienean, seme-alabekiko edo bilobekiko harremana izateak berebiziko garrantzia du. Hala erakusten dute galdetegiari Aitzol Udal Euskaltegiko eta Mintzalagunako partaideek emandako erantzunak. Motibazio indartsua izan daiteke, beraz, herritar berriak egitasmo horietara gerturatzeko nahiz bertaratutakoen ikasketa prozesua motibatuzeko.
5. Tolosa eta euskara zentzu positiboan lotzen joateak duen eragina erakusten digute ondoko emaitzek. Hau da, euskaldunen munduan integratzeko nahia edo euskara ez ezagutzeagatik edo behar bezala ez hitz egiteagatik zer edo zer galtzen ari ote direnaren ustea erakusten digute galdetegian emandako hainbat erantzunek, hala nola, “nire ingurunea euskalduna delako eta integratzeko”, “euskal kultura ezagutu eta ulertzeko”... moduko erantzunek. Puntu honetan kontuan izan behar dugu ere bi egitasmoetako parte hartzaile gehienak 10 urte edo gehiago daramatzala Tolosan bizitzen, beraz, ez da etorri berriaren ustea, urteen ondorioz barneratutako behar edo sentsazioa baizik.

Beraz, lana, Tolosa eta euskara ere lotuko bagenitu, oraindik eta parte hartzaile gehiago izango lituzkete ziurrenera aipatu egitasmoek. Izan ere, kultur ekintzekin, ingurunearekin... integratzeko euskararen beharra argi ikusten duten modura, lanerako ere ezinbesteko sentituko lukete aurrerantzean. 10etik 8 baino gehiagorentzako da euskara garrantzitsua euskaldunekin egoteko... Aldiz, 10etik 7 eta 6rentzako, Aitzol eta Mintzalaguna kasuan, hurrenez hurren, euren ogibidean erabiltzeko.

6. Ingurune euskaldunean bizitzeak eragiten ditu bestelako sentsazioak ere. Izan ere, 10etik 3rentzako euskara jada ez dago arriskuan. Aldiz, 10etik 8 edo gehiago ados daude publikoari begirako lanak egiten dituzten funtzionarioek ezinbestean euskara jakiteko baldintzarekin. Beraz, administrazio publikoak babes hori baliatu beharko luke Tolosako zerbitzu publiko guztietan euskararen erabilera bermatzeko.

Bide beretik, aldagai garrantzitsua izan daiteke ere Tolosan euskara eta lanaren arteko lotura egiteko. Publikoari begirako lana egin behar baduzu...

Aldiz, hizkuntza propio bakarra den ala ez debateak ez du egun erabateko adostasunik Aitzol eta Mintzalaguna egitasmoko partaideen artean eta, beraz, ez da elementu kohesionatzailea.

5 Aurrera begira

Ondoko ikerketa Aitzol Udal Euskaltegiko eta Mintzalaguna egitasmoko ikasleen profilean, iritzietan eta motibazioetan sakontzen jarraitzeko abiapuntua izan daiteke.

Ikerketa kualitatibo batek, hau da, aipatu egitasmoetako partaide konkretu batzuekin egindako elkarrizketa sakonek, pertsona horien asebetetze maila, euskara ikastera eta ikasketetan aurrera egitera bultzatzen dituzten motibazioen ezagutzara eta euskararen mundutik egiten diren mezuekiko iritzietan sakontzeko aukera eskainiko liguke. Halaber, hurrengo urteetan ikerketarekin jarraitzeko eta galde-sortan galdera berriak iradokitzeke aukera emango liguke.

Ondokoa urtero egin beharreko lanketa izan daiteke. Horrek ikasleen profil, motibazio eta iritzietan sakontzen lagunduko liguke. Halaber, parte hartzaileei beraien iritzia kontuan hartzen dela erakusteak, egitasmoetara herritar berriak erakarri eta bezero orientazioa kontuan izanik moldatzeko gain, bertako partaideak egitasmoko parte sentitzeko bidean lagungarri suerta daiteke.

Interesgarria litzateke ere soilik euskaldunen artean halako ikerketa egitea. Osagarria izango litzateke eta euskarazko eskaintzen inguruko iritzia jaso eta motibazioen berri izateko balioko luke. Halaber, euskaldunen eta euskara praktikatzan dutenen nahiz euskara ulertzen ez dutenen iritzia parekatzeko aukera egongo litzateke.

Aitzoleko eta Mintzalagunako parte hartzaile potentzialak euskara ulertzen ez duten edo ulerturik ere bizitasunez hitz egiteko nahiko jariorik ez duten 6.000 lagun baino gehiago dira Tolosan. Hurrengo ikasturteetarako, beraz, egitasmo horien sozializazio lanketarako mezuak sortzerakoan, integrazio eta transmisioari lotutako aipuak egitea, hala nola, seme-alabei, bilobei... buruzkoak egitea eraginkorra izan daiteke.

6 Bibliografia

- AMORRORTU, E., ORTEGA, A., IDIAZABAL, I. eta BARREÑA, A. (2009). *Erdaldunen euskararekiko iritziak eta jarrerak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- AMORRORTU, E. (2014). “Erdaldunen euskararekiko jarrerak”, Euskal Herriko Unibertsitatea, *Hiznet-Hizkuntza Plangintza*, 3.3.
- DRUCKER, P. F. (1989). *Las nuevas realidades*. Bartzelona: Edhasa.
- DRUCKER, P.F. (1995). *Las cinco preguntas más importantes*. Bartzelona: Editorial Gráfica.
- DRUCKER, P. F. (2003). *Drucker esencial*. Bartzelona: Edhasa.
- DURAN-PICH, A. (2010). *El Canon del Management*. Bartzelona: Centro Libros Papf.
- ERIZE, X. (2013). “Management-eko kontzeptuak eta hizkuntza plangintza”, *Euskaltzaindiaren Euskera aldizkaria*, 58, 1, 89-146.
- ERIZE, X. (2014). “Management eta hizkuntza plangintza”, Euskal Herriko Unibertsitatea, *Hiznet-Hizkuntza Plangintza*, 4.4.
- FERNANDEZ DE OSTOLAZA, I. (2006). “Euskara nola saldu”, *Erabili.com*. Artikulua hemen irakurria: http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1138379396
- FERNANDEZ DE OSTOLAZA, I. (2012). “Hizkuntza gutxituen eraginkortasuna pertsuasio prozesuetan. Euskararen kasua EAEn”, *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 85, dossierra.
- JURAN, J. M. (1988). *Juran on planning for Quality*. New York: The Free Press.
- LEVITT, T. (1986). *The Marketing Imagination*. New York: The Free Press.
- MARTINEZ DE LUNA, I. (2013). “Euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamena”, *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 86, 13-83.
- MASLOW, A. H. (1954). *Motivation and personality*. New York: Harper & Row Publishers.
- NONAKA, I. eta TAKEUCHI, H. (1995). *The Knowledge-Creating Company*. New York: Oxford University Press.
- SANCHEZ CARRION, J. M. *Txepetx*. (1987). *Un futuro para nuestro pasado, claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia: Gráficas Lizarra.
- SCHEIN, E. H. (1992). *Organizational Culture and Leadership*. Bigarren edizioa. San Francisco, California: Joseey-Bass.
- ZALBIDE, M. (2004). “Zergatik gertatzen da (edota gertatu da) nagusiki euskaraz bizi izatetik, nagusiki erdaraz bizi izatera pasatzea?”, *Erabili.com*. Artikulua hemen irakurria: http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1083602190/inprimatzeko

7 Eranskina

Jarraian, ikerketa egiteko erabili den galde-sorta jaso dugu. Tolosako Aitzol Udal Euskaltegia jartzen duen lekuan, Mintzalaguna jartzen du egitasmo horretako partaideei pasatako galdetegian eta, aurretik azaldu modura, euskarazko eta gazteleraizko bertsioan pasa zaie ondoko galdetegia aipatu egitasmoetako hartzaileei:

Galderak

Euskararekiko zure iritziak

Data	
Galderak egin diren gunea	
Elkarrizketatzailea	

Euskararen inguruko iritziak jasotzeko helburuarekin, ikerketa lan bat egiten ari naiz. Zuen parte hartzea beharrezkoa dut, galdera batzuen erantzunak izateko. Zuen izen-abizenen anonimotasuna bermatuko dut, hau da, ez dira publiko egingo zuen izen-abizenak.

1

Euskaraz hitz gutxi batzuk baino ez ditut ulertzen: agurrak, galdera oso errazak...	
Galdera errazak erantzun eta esaldi errazak esan ditzazket.	
Lagunarteko elkarrizketetan parte hartu ahal dut.	

Hautatu ondorengo erantzun bat:

1	2	3	4
Bost urte baino gutxiago daramatzat Tolosaldean bizitzen	10 urte baino gutxiago daramatzat Tolosaldean bizitzen	10 urte baino gehiago daramatzat Tolosaldean bizitzen	Betidanik bizi naiz Tolosaldean

2.- Nire lagunartean eta familian euskaraz:

1	2	3	4	5
Ez da batere hitz egiten	Zertxobait hitz egiten da	Gutxi, baina hitz egiten da	Nahikoa hitz egiten da	Asko hitz egiten da

3.- Ondoko baieztapenetatik egokiena iruditzen zaizuna hautatu:

Euskararen mundua gertu dut eta ezagutzen dut	
Euskararen mundua ez dut ezagutzen baina interesa dut	
Euskaldunen artean bizi naiz	
Ez dut uste euskararen mundua existitzen denik	

4.- ondoko baieztapenetatik, zein hautatuko zenuke?

Euskara euskal herritarren hizkuntzetako bat da, ez hizkuntza	
---	--

bakarra	
Euskara euskal herritarren hizkuntza propio bakarra da	

5.- ondoko baieztapenen aurrean, zein da zure iritzia?

	Erabat desados	Desados	Ez ados eta ez desados	Nahiko ados	Erabat ados	Ez dakit
Publikoari begira lan egiten duten funtzionarioek euskara jakitea ezinbestekoa da						
Pediatrei edo medikuei ez litzaieke euskara jakitea exijitu beharko						
Hizkuntza bat salbatzeko ezinbestekoa da neurriak hartzea, nahiz eta guztien gustukoa ez izan						
Euskara babesteko neurriak alderdi guztien adostasunarekin hartu behar dira						
Ez da utzi behar euskara hiltzen						
Onartezina da euskara salbatzeko zenbat diru publiko gastatzen den						
Euskara jada ez dago arriskuan						
Hemengo haurrei ikastetxeetan txikitatik erakutsi behar zaie euskara						

6.- Ondoko baieztapenen inguruan zein da zure erantzuna?

	Erabat desados	Desados	Ez ados eta ez desados	Nahiko ados	Erabat ados	Ez dakit
Euskara ongi ikasi arteko esfortzua						

gingo dut						
Euskaraz zertxobait ikasi asmo dut elkarriketak ulertu eta gutxieneko hitz batzuk esateko						
Nire haurrek edo bilobek euskara jakitea nahi dut						
Derrigortuta nagoelako soilik euskara ikasi asmo dut						

7.- Lehen euskaraz hobeto egiten al zenuen?

Bai	
Ez	

8.- Euskara ikasten gehiagotan saiatu al zara?

Bai	
Ez	

9.- Euskarara gerturatzeko, ikasterakoan... ondokoek zenbaterainoko garrantzia izan dute?

	Batere ez	Oso gutxi	Ez asko eta ez gutxi	Zertxobait bai	Erabat	Ez dakit
Gure hizkuntza delako						
Ez dadin galdu						
Euskaldunekiko errespetuagatik						
Seme-alabei edo bilobei hitz egiteko						
Euskaldunekin euskaraz egiteko						
Lan arrazoiak medio						
Nire ingurunea euskalduna delako eta integratzeko						

Euskal kultura ezagutu eta ulertzeko						
Euskaldun asko dauden ingurunean bizi naizelako						

10.- Ondoko baieztapenaren inguruan zein da zure erantzuna?

Lagun euskaldunik ez dut eta ez dut behar	
Lagun euskaldunik ez dut eta izan nahiko nituzke	
Lagun euskaldun gutxi batzuk ditut eta gehiago izan nahiko nituzke	
Lagun euskaldunez inguratua nago	

11.- Euskara ikasteko prestutasuna dut...

	Batere ez	Oso gutxi	Ez asko eta ez gutxi	Zertxobait bai	Erabat	Ez dakit
Erabatekoa						
Astean 2 ordu edo gutxiagoko esfortzua izatea						
Nire seme-alabekin edo bilobekin zerikusia duten ekintzekin lotura izatea						
Nire ogibiderako beharrezkoak diren komunikazio ekintzak garatzeko balio izatea						
Doakoa izatea						
Funtzionarioak bezala horretarako liberatzea						
Nire intereseko ekintzak eskaintzea: mendira irteerak...						
Herriko euskaldunak eta euskal guneko						

lekuak ezagutzeko aukera eskaintzea						
Euskara ikasteko laguntza ekonomikoa izatea						
Ordutegia nire beharretara egokitua izatea						
Tolosaldean hitz egiten den euskara, kalekoa, izatea						

12.- Aitzol Udal Euskaltegiari dagokionean, zenbateraino zaude ados

	Batere ez	Oso gutxi	Ez asko eta ez gutxi	Zertxobait bai	Erabat	Ez dakit
Egitasmo honen sortzaileek jendea erakartzeko asmoz erabiltzen dituzten mezuekin identifikatuta sentitzen naiz						
Egitasmoa nire beharrak betetzen ari da						
Gomendatuko nioke beste norbaiti parte hartzea egitasmo honetan						
Ordu gutxiagoz joan beharko nuke						
Ordu gehiagoz joan beharko nuke						
Ordutegi aukera zabalagoa beharko luke						
Herritarrekin eta herriko eragileekin kontaktu gehiago bilatu beharko litzateke						
Teoria gutxiago eta praktika gehiago beharko						

litzateke						
Teoria gehiago beharko litzateke						
Lan munduko informazioa zabaldu beharko litzateke: zein lanpostu eskaintzen diren...						
Euskarazko kultur agendaren berri eman beharko litzateke						
Egiten dugun esfortzua saritzeko eta euskara praktikatzeko, euskarazko kultur eskaintzetara joateko beharpenak izan edo doan eskuratu beharko genituzke						